

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA UR PARTZUERGOA

Hasierako onespena ematea 2020ko ekitaldirako aurrekontuari

Kantauriko Urkidetzaren Batzar Orokorrak, 2019ko abenduaren 17ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onspena ematea entitate horren 2020ko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorrari.

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa), espediente hori hamabost egun baliodunez izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote batzar orokorrari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Izoria, 2019ko abenduaren 18a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES